

bai aldizkaria

Bai Euskarari Elkartearen aldizkaria | 33 zk | 2021eko ekaina



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

SAREA INDARTZEN
#BAIEUSKARARISARIAK2021

Rober Gutiérrez
[Zuzendaria]
@robergutierrez



Sarea indartzen

Bai Euskarari sarien ekitaldia izaten da egutegian gorriz markatutako hitzordu garrantzitsuetako bat guretzat. Ezin bestela izan! 2019an izan genuen azken ekitaldia eta, ezaguna denez, iazkoa bertan behera utzi behar izan genuen, gainera, ziurtagiriaren proiektuaren 20. urteurrena behar bezala ospatu gabe.

Hilabete gogorak izan dira guztiontzat, baina lanean segitu dugu gure komunitatea eta sarea zaintzen eta babesten. Ez gara geldirik egotekoak. Aurten ere berrikuntza ugariarekin gatoz, baina bereziki nabarmendu nahi dugu gure marka berri du gura, elkarrearen osotasuna eta gure proiektuen eta lan eremuen hedadura behar bezala erakusteko. Bai Euskarari Elkarrearen garapen handia izan du azken urteotan. Ziurtagiriaren proiektua kudeatzeko sortu ginen, baina proiektu zein lan-ildo berriak sortu ditugu bidean.

Azken urte eta erdian asko ikasi dugu, eta sarea bidelagun izan dugu. Ziurtagiritik hasi eta Bai Euskarari Elkarrearen beste proiektu guztietan parte hartzen dugun guztiok osatzen dugu Bai Euskarari komunitatea, arlo sozioekonomikoaren espazioak euskaraz betetze-ko eragiten ari garenon sarea.

Aurtengo sarietan, hortaz, sarea dugu foku nagusi, eta bertan kokatzen ditugu aurtengo saritu ditugunak. Euren praktika egokiak eta eredu garrantzitsua saritu nahi izan ditugu, haien ereduak erakusteko, beraien jardunean osagai ezinbestekoa baita euskara. Hiru saridunen bidelagun izateko plazerra du Bai Euskarari Elkarrearen.

Gure sarea indartzen ari dira IZT, Athlon eta Biharko Taldea aurtengo sa-

ridunak. IZTn, 2005ean hasi zirenean, garbi izan zuten Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu behar zutela eta ibilbide guztian presente izan dute. Eremu digitalan egiten dute lan, enpresei aholkularitza eskaintzen, euskara normaltasunez erabiliz eta lan-tresna gisa hartuz. Teknologiaren eta digitalizazioaren garai honetan, akeria ugari sortu zaizkie eta horiek baliatzen ari dira, euskara erdigunean jarrita.

Arrasateko Athlon kooperatibak duela lau urte eskuratu zuen Bai Euskarari Ziurtagiria. Ohitura osasungarriak sustatzeko lanean dihardute sortu zirenetik eta proiektu ezberdinetan euskarazko zerbitzua bermatzen dute. Athlonen helburua da jendearen bizi kalitatea hobetzen laguntzea, ohitura osasuntsuak sustatzeko erronka dute, gu eta euskara sasoiko egoteko.

Biharko Taldeak gizarte zerbitzuen alorrean lan egiten du, azken urte eta erdian hain garrantzitsuak iruditu zaizkigunak. Gipuzkoako egoitzetan eta eguneko zentroetan kudeaketa integratuko zerbitzuak eskaintzera bideratutako enpresa da. Funtsezkoa iruditzen zaie euskarazko zerbitzua bermatzea eta, horregatik, saria jasotzea egunero lana ondo egitearen adierazletzat dute. Pandemiak eragin die, eta haien zerbitzuaren indarguneetako bat hurbiltasuna bermatzea izan da, euskara informazioa transmititzeko bide gisa erabilia.

Elkarrekin eta saretuta errazagoa da edozein krisi gainditzea. Inoiz baino argiago dugu sare hau indartzen eta elikatzen jarraitu behar dugula, gure indargune handienetako bat baita. Jarrai dezagun #SareaIndartzen

Bai Euskarari Sariak

IZT 03

Juani Lizaso
Jon Zulueta

Athlon 06

Judith Eraña

Biharko 09

Monika Masa
Ainhoa Castrillejo
Larraitx Olaizola

Elkarrearen 12

Irudi berria
Rober Gutiérrez elkarrearen

#11arrazoi 14

Komunitatearen txokoa 15

Argitaratzailea: Bai Euskarari Elkarrearen
www.baieuskarari.eus

Martin Ugalde Kultur Parkea - 20140 Andoain

t. +34 943592148

38 Cordeliers karrika - 64100, Baiona

t. +33 603494365

Luzarra 10, 2-1 - 48014 Bilbo

t. +34 673811048

Rogelia de Alvaro Elkarrearen Etxea A.1.1.

Panama, z/g - 01012, Gasteiz
t. +34 945215196

Martzelo Zelaia, 75 U3 eraikina,
13. bulegoa 31014 Iruñea
t. +34 673811048

Zuzendaria: Rober Gutiérrez

Kudeaketa eta erredakzio-taldea:
Bai Euskarari Elkarrearen eta Arteman
Komunikazioa.

Diseinua eta maketazioa: dalvez

Argazkiak:

IZT, Athlon, Biharko,
Bai Euskarari Elkarrearen
eta Arteman Komunikazioa.

Inprimatzailea: Leitzaran Grafikak

Banaketa: Bai Euskarari Elkarrearen

Lege gordailua: SS-497-2010



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus



JUANI LIZASO

IZT-KO KUDEATZAILEA

JON ZULUETA

IZT-KO MARKETING ARDURADUNA

“Lan eremuan euskara normaltasunez erabiliz eta lan-tresna gisa hartuz egin nahi izan dugu gure ekarpena”

ENPRESA SORTU ZENEAN ESKURATU ZUEN ANDOAINGO IZT KOOPERATIBAK BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA, 2005EAN, ETA ZERBITZUA EUSKARAZ ESKAINTZEN DUTE HARREZKERO. EREMU DIGITALEAN EGITEN DUTE LAN, ENPRESEI AHOLKULARITZA ESKAINTZEN BATEZ ERE, ETA PANDEMIAREKIN ERRONKA UGARI SORTU ZAIZKIE.

Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

(Juani Lizaso) Sorpresa izan da eta jarraitzeko poz handiarekin hartu dugu albistea, harrotasun handiarekin. 2005ean hasi ginenean garbi eduki genuen Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratu behar genuela eta ibilbide guztian presente izan dugu.

(Jon Zulueta) Bilatzen ez bada ere urtetako lanaren errekonozimendua da eta poztekoa da.

Nola daramazue urtebete hau, pandemia dela-eta?

(J.L.) Profesionalki, oso ondo. Fase ezberdinak izan ditugu eta hasiera erokeria izan zen: 2-3 astetan etxetik lan egiteko baldintzak jarri genizkien 100 bat bezerori, sektore, tamaina eta ezaugarri ezberdinetakoei. Erokeria bat izan zen eta oso harro gaude lortu genuelako.

Lehenengo beharrak asetu genituen eta, ondoren, hori guztia egonkortzen egin dugu lan.

Gure sektorean lan egiten duten



“Lan eta aukera komertzial asko ekarri dizkigu pandemiak”

enpresa guztiei lan eta aukera komertzial asko ekarri dizkigu. Nahiko pribilegiatuak gara profesionalki, aukerak sortu dizkigulako.

Pandemiaren fase guztietan garbi

izan dugu diruarena alde batera utzi behar genuela, eta ez da izan gure lehentasuna, bereziki lehen fasean. Hainbat zerbitzu dohainik eman genizkien bezeroei garbi genuelako emateko momentua zela eta horrek ekarriko zizkigula beste modu bateko etekinak.

(J.Z.) Azken urtean oso nabarmen geratu da teknologiaren eta digitalizazioaren menpe gaudela ekonomia-

ren garapenean eta egunerokoan funtzionatzeko premia bat zegoela antolatzeke garaian. Bezeroen bide-lagun izan gara eta lortu dute etxetik lan egin ahal izatea; horrek satisfazioa ematen du.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue IZTn?

(J. Z.) Nagusiki hiru zerbitzu dira: informazio sistemen diseinua eta in-plantazioa batetik; programazioari dagozkion eremuan, web aplikazioak eta webguneak, bestetik; eta, azkenik, cloud edo lainoaren arloa. Hori guztia ahaztu gabe aholkularitza zerbitzua ematen dugula. Bezero batzuek oso garbi dute zer behar duten, baina beste askok aholkularitza zerbitzu bat behar dute eta bide bat marrazten da beraiekin batera.

(J. L.) Enpresa txikiekin egiten dugu lan. Gure bisioaren barruan bazegoen bitarteko gutxiago dutenen bidelagun eta aholkulari izatearena. Zerbitzu integrala eman nahi dugu.

Asko hitz egiten da orain eraldaketa digitalaz. Zein dira zuen ustez eraldaketa digitalerako gakoak enpresa batean?

(J.L.) Ez da erraza. Eraldaketa digitala definitu genezake orain arte bulegoetan edo fabriketan egiten zen lan hori lainora edo Internetera eramatea bezala. Gakoak zein diren? Hasteko, definizio on eta sakon bat izan behar da, negozioa bera ondo ezagutu eta hori egonkortzeko teknologiak ezagutzen dituen bitartekoak erabili. Horretarako, jende gehienak aholkularitza behar du. Aholkularitzaren bidez diagnostiko egoki bat egitea eta horretan oinarrituta estrategia digital bat markatzea ezinbestekoa da. Enpresa edo jarduera bakoitzak helburu edo bide desberdinak ditu eraldaketa digital horretan pausoak emateko. Ikastetxe bat edo makina erremintako enpresa bat oso ezberdinak dira. Denda batek eraldaketa digitala egi-

nez gero, adibidez, auzoan saltzetik mundu osoan saltzera iritsi daiteke.

(J.Z.) Eraldaketa digitalak hobekuntza ekarri behar du eremu guztietan: ekoizpena, hezkuntza eta jakintzaren garapenean. Eraldaketa digitala ez da webgune bat izatea; ondo identifikatu behar da zer den hobetu beharrekoa eta horren plangintza eta inplementazioa egin.

Telelana ere denon ahotan dago. Orokorrean, nola harrapatu gaitu pandemiak telelanari dagokionez?

(J.L.) Bazetorren gauza bat zen, batez ere atzerrian, baina hemen ez geunden prestatuta eta honek guztiak izugarri azkartu du dena. Ez geunden prestatuta ez teknikoki ezta psikologikoki ere. Denok ikasi dugu izugarri eta telelanaren onurak eta desabantailak zeintzuk diren ikusi dugu. Orain nabaritzen ari gara jende dezente ari dela formula misto batekin uztartzen; erabateko telelana egin beharrean, etxeko kontziliazioa dela edo bidai batzuk aurrezteko dela, antolatzeke erabilgarria dela eta eraginkorragoa izan daitekeela ikusi da.

(J.Z.) Inflexio puntu bat egon da. Kasu askotan gutxieneko teknikoak jarrita egin da eta orain beste fase batean sartu behar dugu; telelanaren onurak ikusi eta hori ondo eta modu efizientean egiteko zer egin behar dugun ikusi behar dugu. Horrek apustua eta inbertsio bat egitea eskatzen du.

Sareen segurtasunerako sistemekin ere egiten duzue lan. Zein arrisku ditu norbanako batek datuak laianoan jartzean? Eta enpresa batek?

(J.L.) Oinarri bezala hartu behar dugu sortzen dugun informazioa izugarria dela. Noiz konektatzen garen whatsappera, noiz bidali dugun e-posta mezu bat, noiz gauden Twitterren... etengabe informazioa sortzen ari gara. Bakoitzak bere aldetik informazio hori hartuta ez da esanguratsua,



“Euskara oso parte inportantea izan da eman nahi genuen zerbitzu horretan: hurbila, gertukoa eta konfiantzazkoa”

baina enpresa multinazionalak datu horiek elkarkonektatzeko aukera dute, profilak sortuz. Pribatutasunaren arrastoan dago arriskua.

Sortzen ditugun datuak konfidentzialak direnean, enpresa batean, adibidez, beste arrisku handi bat da. Burura etortzen zaigu datuak lapurtzen dituen hacker bat, baina kasu gehienetan etxe barrutik etortzen dira arriskuak; akats pertsonalek sortzen dituzte zulo handienak.



“Denda batek eraldaketa digitala eginez gero, adibidez, auzoan saltzetik mundu osoan saltzera iritsi daiteke”

Oinarrizko arriskuak daude. Orain dela gutxi gertatu da Estrasburgon erre zirela hainbat zerbitzari; guri pare bat zerbitzari harrapatu zizkigun sute hark. Segurtasun kopiak bagenituen eta berreskuratu ahal izan genuen hango informazioa. Asko geratu ziren informaziorik gabe eta galera hori izan daiteke arrisku handienetako bat.

Sortzen dugun informazioa izugarria da, baina gero ez badugu siste-

matizatzen informazio hori ordenatua izateko eta diseinu egoki bat izan hori guztia babesteko, alferrik da. Bideragarritasun ekonomikoari nola eragiten dio horrelako galera batek? Gauza horiek aurreikustea interesgarria da.

(J.Z.) Entzutetsuak izaten diren bahiketa eta erasoak daude, baina informazio sistema sendoa bat izatea eta lan prebentiboak egitea da gakoa. Gu saiatzen gara aurre hartzen eta lan prebentibo asko egiten ditugu.

Lainoaz hitz egiten da, baina laino hori ez dago zeruan... Badirudi Internetek ez duela kutsadurarik sortzen, baina datuak biltegitratzeko ordenagailuz betetako pabilioi handiek energia asko behar dute... Nola uztartu *cloud computing* zerbitzuak eta iraunkortasuna?

(J.L.) Argindarraren kontsumoarena da bat eta beste bat da, hori baino larriagoa, tresna teknologikoek behar dituzten materialen ustiaketa. Afrikako esplotazioetatik datoz gehienak eta lehen munduan ditugun abantailetan oso presente dago hori. 5Garekin ere material eta argindar ustiaketa izugarria izango dela esaten dute.

(J.Z.) Argi dago sektorearen erronketako bat dela, baina gurea bezalako enpresa txiki batek zeresan gutxi dauka. Derrigortuta gaude sistema horretan aritzera. Trantsizio energetikoaren barruan ikusi beharko da nola egiten dugun bertatik bertarako prozesuak indartzeko.

(J.L.) Lainoak errazten dizkigu harremanak eta bi euroko gauzak datoz Txinatik aztarna ekologiko izugarria eraginez. Teknologiarekin baino munduaren antolaketaarekin du zerikusia.

Euskara zuen entitatean txertatzeko zein pauso eman dituzue?

(J.L.) Oso modu naturalean izan da dena. Sorreratik oso garbi genuen zerbitzua euskaraz ere eman behar

genuela. Euskara oso parte inportantea izan da eman nahi genuen zerbitzu horretan: hurbila, gertukoa eta konfiantzazkoa. Baldintza bat jarri genuen kontratzen genituen guztiak euskaldunak izan behar zirela. Lan eremuan euskara normaltasunez erabiliz eta lan-tresna gisa hartuz egin nahi izan dugu gure ekarpena.

(J.Z.) Kooperatiba ere bagara eta ez da ulertzen enpresaren izaera juridiko bat bezala soilik. Gure ingurunean dugun arduragatik euskarak ardatz inportantea betetzen du; ez dugu ulertzen gure jarduna euskararen normalizaziotik kanpo.

Eremu digitalean egiten duzue lan. Euskararentzat erronka da eremu hori ere. Nola bizi duzue eremu digitalaren eta euskararen arteko oreka?

(J.L.) Sare sozialen eremua da batez ere sustatu beharko litzatekeena eta lan munduan ere presentzia txikia du euskarak berak.

Guk, besterik adierazi ezean, euskaraz egiten ditugu garapenak, batez ere barne tresnak direnean. Programa estandar batzuk ere euskaratzen aritzen gara. Orain, adibidez, bideokonferentziak egiteko aplikazio bat euskaratzen bukatu dugu: *BigBlueButton*. Al-fresco ere euskaratzen lagundu dugu.

Zein arrazoi emango zenukete Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko?

(J.Z.) Batetik euskaraz funtzionatzeko eta zerbitzua euskaraz emateko konpromiso bat adierazten duelako, eta bide horretan antolakundearen eremu guztiak euskalduntzeko bidea egitea erronka polita delako. Eta bestetik, euskaraz bizi nahi duten antolakunde eta norbanakoekiko begirunea adierazten duelako. Antolakundearen erantzukidetasun soziala handitzen du eta horrek bere eragina du eremu guztietan.

JUDITH ERAÑA

ATHLONEKO KOMUNIKAZIO
ETA MARKETING ARDURADUNA

“Kanpora begira, lehiakorrango egiten gaitu Bai Euskarari Ziurtagiriak”

DUELA LAU URTE ESKURATU ZUEN BAI EUSKARARI
ZIURTAGIRIA ARRASATEKO ATHLON KOOPERATIBAK.
OHITURA OSASUNGARRIAK SUSTATZEKO LANEAN
DIHARDUTE SORTU ZIRENETIK ETA DITUZTEN PROIEKTU
EZBERDINETAN EUSKARAZKO ZERBITZUA BERMATZEN DUTE.

Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Guretzat oso pozgarria da eta harro sentiarazten gaitu. Euskaraz bizi gara gure inguruan, zerbitzua euskaraz eskaintzen dugu eta lan ere euskaraz egiten dugu; kooperatiba euskalduna gara. Bai Euskarari Ziurtagiria orain dela lau urte lortu genuen eta, hain ibilbide motzean, saria guri emateak harro sentiarazten gaitu. Gure lana beste batzuei zerbitzua eskaintzea izan da betidanik, beste ba-tzuen aterkipean egon da gure izena. Baina gero eta handiagoak gara eta sari honek ikusgarritasun handiagoa ematen digu. Oso pozik gaude.

Nola daramazue urtebete hau, pandemia dela-eta?

Urtebete luzea izan da. Gure zerbitzu gehienak eten egin ziren martxoan: Eskola Kirola, kiroldegia itxita, Bizkar Klinikak itxita, Kirol-medikuntza, enpresa askotako lana ere etenda... Guretzat oso momentu gogorra

izan zen eta jende askori aplikatu behar izan genion Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientea (ABEEE). Inor kalera ez botatzea izan zen gure filosofia eta zer egin genezakeen pentsatzen hasi ginen. Gure lana moldatu nahi izan genuen bezeroek ikus zezaten hor geundela. Eskaintzen dugun zerbitzua osasuna eta jarduera fisikoa dagoenez oinarrituta, zerbitzu hori online eskaini genien bezeroei. Ariketak zelan egin azaltzen zuten bideo asko egin genituen bezeroentzat. Bizkar Klinikako bezeroak ezin zirenez etorri, gure fisioterapeutekin telefonoz izan zuten hartueman eta pertsonalizatu egin zen.

Aktibitatea hasi zitekeela esan zutenean guztia ahalik eta azkarren zabaltzea izan zen gure helburua. Kasu batzuetan ez zen posible izan; kiroldegietan, adibidez. Covid protokoloak, aforo mugatuak, garbiketa... horiek guztiak antolatu genituen eta zerbitzua eskaintzen hasi ginen. Dena dela, jende asko beldur zen eta momentu



hartan ez zuten zerbitzuarekin jarraitzerik nahi izan.

Orain, txertoarekin, hasi gara mugimendua igartzen Kirol Medikuntzan eta Bizkar Kliniketan. Jendea lasaiago dago eta zerbait egin nahi du. Enpresei zuzendutako zerbitzuak berriztuta, ilusioz hasi gara martxan.

Ez dugu inor bota eta hori garaipen bat da; lan-taldea indartzeko balio izan digu urtebete honek.

Zein zerbitzu eskaintzen dituzue ATHLONen?

Hiru negozio-lerro ditugu: osasuna, formakuntza eta kirol instalazioen kudeaketa. Osasunaren barruan zerbitzu hauek ditugu: Kirol-medikuntza

**“Ez dugu inor bota eta
hori garaipen bat da;
lan-taldea indartzeko
balio izan digu
urtebete honek”.**



(esfortzu-frogak, mediku-azterketak, lesioen trataera, kirolarien entrenamenduen planifikazioa); Bizkar Klinikak; eta Enpresa Osasungarria, ergonomia eta osasun programak inplantatzen ditugu bertan. Formakuntza barruan eskaintzen dugu: Eskola Kirola (Leintz eskola kirola) eta Gasteizen 12 ikastetxeetan; Unibertsitate Kirola, MUko fakultate guztietan; formakuntza arautua Mondragon Unibertsitateko Hezkuntza graduatan eta Arizmendi Ikastolako Heziketa Zikloetan; gorputz hezkuntzako eskolak ematen ditugu Arizmendi Ikastolako DBH eta Batxilergoan; eta, azkenik, osasun eta kirol arloko proiektuak garatzeko aholkularitza eskaintzen diegu entitate publikoei.

Kirol Instalazioen Kudeaketan kiroldegia kudeatzen ditugu; Kataluniako Sintagma enpresarekin batera sortu dugu Athlon Sintagma S.L. enpresa kiroldegia kudeatzeko.

Athlon 75 bat pertsonok osatzen dugu.

Pandemiak ekarri dituen ohitura berriei ere aldatu behar izan dizue eskaintza?

Pandemia hasi zenean konturatu ginen etxetik online lan egiteko prest geundela. Zerbitzari batekin egiten dugu lan eta Athloneko guztiek dute ordenagailu eramangarria, zerbitzarrira VPN bidezko sarbidea eta telefonoa. Eskerrak bulego birtuala jada sortuta gurea.

Gauza asko ezin ziren egin, baina ahal guren guztia egin guren. Kiroldegietarako, adibidez, webgune bat osatu guren ariketa ezberdinekin.

Etxean sartuta egon garen honetan garrantzi handia hartu du bizitza aktiboa izateak. Arlo horretan aldatetarik sumatu dizue? Zuengana jende gehiago dator?

Ikusten dugu joera hori badagoela eta jendea hasi dela kirola egiten, baina kiroldegietara ez da etortzen lehen baino jende gehiago, beldurra dago oraindik. Jendea kanpoan hasi da ki-

rola egiten, aire librean. Eskola kirola bertan behera gelditu zenean ere hori bera sustatu guren familientzat sortutako erronkekin. Kirol medikuntzara zetozen asko kirol-probetan parte hartzen zuten kirolariak ziren, baina horiek ere etenda daude orain. Esperantza dugu irailetik aurrera aldatuko dela guztia.

Nola sustatzen da ohitura osasungarri dagokien kultura prebentiboa eta proaktiboa? Oker ez banago, enpresetan ohitura osasungarri lantzeko metodologia dugu.

Athlonen helburua da jendearen bizi kalitatea hobetzen laguntzea. Adin txikikoekin hasi eta zahartzarora arte egiten dugu lan. Enpresetan enpre-

“Gizarte osasungarriaren kultura transmititzen saiatzen gara egunero”.

sak berak ikusten du gabezia hori da-goela eta langileek zerbaiten beharra dutela. Formazioa ematen diegu arlo ezberdinetan: osasuna, elikadura eta jarduera fisikoa.

Neska-mutikoen ohitura osasuntsuak sustatzeko lanean diharduzue. Nola?

Athlonen sorreratik umeengan ohitura osasuntsuak sustatzea izan da gure erronka nagusietako bat eta horretan dihardugu. Datorren ikasturteari begira sustapen hau era sistematikoan eta neurtuta egiteko asmoa daukagu. Umeek ohitura osasungarriak har ditzaten eskolan, astean Heziketa Fisikoko bi ordu izatea ez da nahikoa, txikitatik kontzientzia hartze-ko lanean gabiltza.

Norbere eta gizartearen ohiturak aldatzea oso zaila da, gure ahalmenaren arabera, gizarte osasungarriaren kultura transmititzen saiatzen gara egunero.

Bizkar Klinikak dituzuela esan duzu lehen. Zer dira Bizkar Klinikak?

Bizkarreko mina kentzeko bizkarreko makina batzuen bidez erabiltzen dugun metodologian datza. Finlandiatik ekarritako metodologia bat da, emaitza oso onak ematen zituela ikusi genuen eta apustua egin genuen. Aretxabaletako Ibarra kiroldegian jarri genuen lehenengoa eta Donostian eta Gasteizen ditugu beste bi klinika. Makina berezi horietan egiten diren ariketekin indarra eta mugimendua lantzen dira. Fisioterapeuta batek la-



guntzen du horretan. Enpresetan ere hasi gara Bizkar Klinika txikiak jartzen (mini-klinikak); Goizperren, Coprecin eta Eroskin jarri ditugu mini-klinikak.

Etorkizunera begira, zein proiektu-helburu dituzue?

Mini-klinika horiek bultzatzea da proiektuetako bat; orain dela pare bat hilabete hasi gara horretan. Emaitzak oso onak direla ikusi dugu eta ilusio handia dugu.

Gazteekin kirolean euskara bultzatzeko ekimenak egin izan dira. Nola bultzatu daiteke gazteen artean euskara?

Eskola Kirolean bertan ere euskara

bultzatzen dugu; begiraleek, adibidez, euskaraz jakin behar dute, euskaraz egin behar dute saioetan eta euskararen erabilera sustatzeko formakuntza egiten dute, udaletako Euskara sailarekin elkarlanean.

Bai Euskarari Ziurtagiria duzue 2017tik eta zerbitzua euskaraz eskaintzen duzue. Zein arrazoi eman- go zenuke ziurtagiria eskuratzeko?

Barrura begira, langileen motibazio-rako baliagarria izan zaigu Bai Euskarari Ziurtagiria. Kanpora begira, berriz, lehiakorrago egiten gaitu, euskara ziurtagiririk gabe ezin baitugu lehiaketa publikoetan parte hartu.

EUSKARA
KULTURA
HERRIAREN GEROA



MONIKA MASA

SAN LAZARO EGOITZAKO
ZUZENDARIA

AINHOA CASTRILLEJO

ERIZAIN LAGUNTZAILEA
ETA EUSKARA BATZORDEKO KIDEA

“Galduta sentitzen dira, arreta beraien hizkuntzan jaso ezean”

BIHARKOK KUDEATZEN DUEN EGOITZETAKO BAT DA ELGOIBARKO SAN LAZARO. GAUR EGUN, 48 EGOILIAR DAUDE BERTAN ETA 60 BAT LAGUNEK EGITEN DUTE LAN. PANDEMIAK EZARRI DIZKIEN MUGAK MALGUTZEN ARI DIRA PIXKANAKA ETA LASTER LEHENERA ITZULTZEA ESPERO DUTE.

Nola daramazue urtebete hau, pandemia dela-eta?

(A.C.) Oso gogorra izan da, baina jabetu gara lan-talde oso ona daukagula eta lana oso ondo irten da.

(M.M.) Egoera honetan denok argi izan dugu zein den gure betebeharra eta gure esku egon den guztia egin dugu Covid19-ari hesia jartzeko. Oso gogorra da eta izaten jarraitzen du, hau ez baita bukatu.

(A.C.) Klean beste normaltasun bat ikusten da, baina egoitzetan oraindik mugatuta gaude eta psikologikoki oso gogorra da. Egoiliarrek ere irten ezinda egon dira eta laguntza psikologikoa eman zaie.

Zahar etxeak izan dira sektore kalte-tuetako bat. Zein neurri hartu dituzue pandemiari aurre egiteko?

(M.M.) Hartu beharreko neurri guztiak hartu dira agente guztion aldetik. Zaintza eredua aldatu dugu eta pertsonengan fokoa jarrita eman dugu arreta. Hori lortzeko, besteak beste egoitza sektoretan banatu dugu. Lehen egoiliar guztiak elkarrekin egoten ziren eta orain talde txi-



kiagoetan banatuta daude: solairuka banatu ditugu eta solairu bakoitzean ematen zaie behar duten zerbitzua eta hau gehiago pertsonalizatzen saiatu gara. Langileak beraien familia txikia izatea nahi genuen momentu gogor horietan eta nik uste hein handi batean lortu dugula.

Irakaspenik edo zerbait positiborik atera duzue azken urtebete honetan?

(M.M.) Pandemia hasi zenean ikusi genuen mundu guztia laguntzeko prest zegoela, denok helburu bera pertekatzen genuela: egoiliarrek eta

“Zaintza eredua aldatu dugu eta pertsonengan fokoa jarrita eman dugu arreta”

gu geu ondo egotea. Pandemia honek balio izan dit ikusteko lantalde ona dugula eta konpromiso handia duela.

(A.C.) Jendearen konpromisoa handia izan da, egia da. Oso gogorra izan da egoiliarrentzat familia ikusi gabe egotea. Oso ausartak izan dira. Jendea kalean ikustean bukaera ikusten ari dira, ea laster itzultzen garen lehenengo egoerara.

Etorkizunera begira, zein asmo edo proiektu dituzue?

(M.M) Ikusi beharko dugu neurriak nola etorriko diren. Momentuz, sektoreak mantenduko ditugu. Egoitza irekia zen, egoiliarrek nahi zutenean irten zitezkeen lehen eta hori berreskuratzea polita izango litzateke.

(A.C.) Sektoretan banatu eta zerbitzu guztiak horrela ematea oso gogorra izan da, eta egunero gauzak aldatzen eta hobetzen aritu gara. Lanean ikasten da eta, aurtengoa ikasketa handia izan da.

Zaintzaren gaia lehen lerrora ekarri du pandemia honek. Behar besteko garrantzia ematen diogu zaintzari? Eta adinekoen zaintzari?

(A.C.) Ez dut uste behar besteko garrantzia ematen diogunik zaintzari. Bai zaintzan aritzen diren langileak eta bai egoiliarrek, gizarte honen oinarrian jarri behar dira, pandemian egin den bezala. Aurten konturatu gara lantalde bikaina osatzen dugula eta gizartean hori islatua ikustea nahi dugu, ezin dugu jasan pertsona batzuek egiten dituzten erokeriak momentu go-



gor hauetan. Ezin gara ahaztu, oraindik ere pandemiaren erdian gaudela.

(M.M) Zahar-etxeak oraindik kanpotik ikusten dira, ez da ezagutzen barruko lana eta ez da balioan jartzen egiten den esfortzu guztia. Pandemiarekin ikusi da jendeak gehiago baloratzeko duela lan hori eta barruko lan hau gehiago ikusi da.

Euskarak zer garrantzia du zuen lanean? Norberaren lehen hizkuntzan arreta emateak badu eragin positiborik?

(M.M) Arreta eta zerbitzua norberaren hizkuntzan jasotzea garrantzitsua da.

(A.C.) Egoiliarrek arreta bere lehen hizkuntzan jasotzeak garrantzia handia du. Badugu egoiliarren bat edo beste, adibidez, gaztelaniaz egitea kosta egiten zaiena eta euskaraz arreta jasotzeak lasaitzen ditu, beste

“Pandemia honek balio izan dit ikusteko lantalde ona dugula eta konpromiso handia duela”

konfiantza bat ikusten dute. Ez badute arreta beraie hizkuntzan jasotzen, galduta sentitzen dira.

Zergatik eskuratu behar da Bai Euskarari Ziurtagiria? Zein arrazoi emango zenukete ziurtagiria eskuratzeko?

(M.M) Arrazoiak? Egoiliarrek euskarazko zerbitzua izateko aukera bermatzeko.

(A.C.) Euskaraz zerbitzua ematea premiazko arreta bat delako, horregatik eskuratu beharko litzateke Bai Euskarari Ziurtagiria.

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING

Neurri handiko mekanizazioa

Ezagu politoia, 21
BERRANI
T. 943 55 25 52 - 16
T. 943 55 28 16
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

LARRAITZ OLAIZOLA

BIHARKOKO ZUZENDARI TEKNIKOAK

“Funtsezkoa iruditzen zaigu euskarazko zerbitzua bermatzea”



Bai Euskarari Saria jasoko duzue. Zer da zuentzat sari hau jasotzea?

Egia esan, Biharkok saria jasotzea eguneroko lana ondo egitearen sinonimoa da. Funtsezkoa iruditzen zaigu euskarazko zerbitzua bermatzea, eta zuek bezalako erakunde baten lan hori aitortzea eskertzekoa da. Urte zaila izan da, baina uste sendoa dugu, zaintza egokiekin, berotasunean eta hurbiltasunean arreta jarrita eta gure adinekoen ama hizkuntza erabilia, errazagoa dela edozein krisi gainditzeko. Pandemiak eragin handia izan du erabiltzaileengan, eta une horietan gure zerbitzuaren indargunetako bat hurbiltasuna bermatzea izan da, euskara informazioa transmititzeko bide gisa erabilia.

Zer da Biharko? Zer zerbitzu eskaintzen dituzue?

Biharko Gipuzkoako egoitzetan eta eguneko zentroetan kudeaketa integraleko zerbitzuak eskaintzen

bideratutako enpresa da, eta gizarte-zerbitzuekin lotutako beste baliabide batzuk ditu. Benetan, zentzu guztietan eskaintzen duguna laguntza bat da, pertsonen bizitzako azken urteei aurre egiteko laguntza bat ez ingurune pertsonaletan, baina bai hurbilekoetan eta goxoetan. Hurbiltasun hori dela eta, duen handitasun guztian, ematen diren zerbitzuak kalitatezkoak dira.

Zerk egiten du berezi Biharko?

Esan dugun bezala, Biharko eta erakunde horrekin lotura duten pertsonak berezi egiten dituen tratuan dugun gertutasuna da. Zuzendaritzako pertsonetatik hasi eta zentroan zeharkako zerbitzuak ematen dituzten pertsonetarako, adineko pertsonarekiko eta ondoan dugun pertsonarekiko hurbiltasuna eta berotasuna dira Biharko benetan berezi egiten dutenak. Hurbiltasun hori ekintza zehatzetan ikusten da, gure

lanean euskara erabiltzean, adibidez. Euskara oso errotuta dagoen tokietan (Azkoitia, Elgoibar, Orio, Getaria...) langileek hizkuntza ezagutzea eta ama hizkuntza eta norberaren hizkuntza gisa izatea da erabiltzaileak bizitzarekin konektatuta egotea dakartenak.

Bai Euskarari Ziurtagiria duzue, ‘Zerbitzua euskaraz’ maila. Zertan lagundu dizue ziurtagiriak?

Ziurtagiri hau errekonozimendu bat da, baina baita gure sustraiak eta zerumuga ez ditugula galdu behar oroitzeko tresna ere. Izan ere, garrantzitsua da lan hori aitortzea, baina aitortzen dena ez da ekintza puntual bat, baizik eta ibilbide bat eta etorkizun bat. Horregatik, lan asko eta ondo egiten da, gure sustraiak non dauden ahaztu gabe eta urtez urte, aldaketaz aldaketa, euskarak gure lanean eta tratuan presente jarrai dezan lan eginda.

GURE KULTURAREN KOLORE GUZTIAK

LEITZARAN
grafikak

Gudarien Hiribidea 29
20140 Andoain (Gipuzkoa)
Tf: 943 30 35 10
www.leitzaran.eus
grafikak@leitzaran.eus

Irudi berritua du Bai Euskarari Elkarteak

Elkartearen irudia garai berrietara egokitzeko eta elkarteak dituen proiektu ezberdinak bateratzeko lanean aritu gara azken hilabeteotan. Bai Euskarari Elkatea izena marka-irudian bertan agertuko da hemendik aurrera eta elkartearenak diren proiektu ezberdinetako markak ere horren arabera egokitu dira: Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean eta Euskaragileak.

Marka-irudiak kolore laranja mantentzen du, kolore bizia eta, aldi berean, beroa. Elkarte aktiboa eta gertukoa irudikatzen dugu. Bestetik, azken urteotan bereizgarri egin den silueta ere mantentzen da, markaren nortasun propioa mantenduz.

Logotipoari Lan eta Bizi Euskaraz



leloa gehitu diogu, Bai Euskarari Elkarteak historikoki erabili izan duena eta gure helburuarekin bat

egiten duena. Logotipoak eta leloak osatzen dute Bai Euskarari Elkartearen marka-irudi berria.

Rober Gutiérrez

Bai Euskarari Elkartearen zuzendaria

Irudi berritua du elkarteak. Zein izan dira aldaketa egiteko arrazoi nagusiak?

Bai Euskarari Elkarteak garapen handia izan ditu azken urteotan. Ziurtagiriaren proiektua kudeatzeko sortu ginen, baina proiektu zein lan-ildo berriak sortu ditugu bidean. Orain arte izan dugun irudiak ez zituen elkartearen osotasuna eta hedadura erakusten, Bai Euskarari Elkatea ziurtagiri bat baino gehiago dela ikusarazi nahi genuen eta ditugun proiektu guztiei bateragarritasuna eman. Adibidez, Enpresarean edo Lansarean lan-ataria gure proiektuak dira baina, askotan, erabiltzaileek ez zituzte Bai Euskarari Elkartearekin lotzen.

Hala, irudi berri baten beharra ikusi genuen. Horregatik, gure proiektuak

eta lan eremuak hobeto zehazteko ariketa egin dugu eta hori markan ere erakutsi nahi izan dugu. Orain, Bai Euskarari Elkartearenak diren proiektu guztiek marka-irudi bateratua dute: Ziurtagiria, Enpresarean, Lansarean eta Euskaragileak. Eta, horrela, Bai Euskarari Elkartearen irudi osatuagoa erakutsi ahal izango dugu hemendik aurrera.

Proiektu ugari ditu martxan elkarteak arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteari begira. Zein dira proiektu horiek eta nola ari zarete garatzen?

Hiru lan eremu nagusi ditugu zehaztuta gure xedea lortzeki begira: batetik, Bai Euskarari Ziurtagiriaren kudeaketa eta sustapena; bertan,

Ziurtagiriaren proiektua dugu. Bigarrenik, arlo sozioekonomikoaren eragileen eta espazioan aktibazioa: Enpresarean, Lansarean lan-ataria eta Euskaragileak, besteak beste. Hirugarrenik, komunikazioa eta sentsibilizazioa: Bai Euskarari Sariak, LehenHitzaEus, Gasteizko kontsumo kanpaina, etab. Aipatutako proiektu horiek elkartearenak dira eta guk geuk kudeatzen ditugu osorik.

Dena dela, arlo sozioekonomikoaren eragileen eta espazioen aktibazioari dagokionez, badugu proiekturen bat partekatzen duguna, esate baterako, Arabako Foru Aldundiarekin batera kudeatzen ditugun Lazarraga Sariak. Halaber, azken urte hauetan, administrazioentzat hainbat proiektu ari gara prestatzen eta garatzen: Lana-

bes proiektuaren barruko Arabako Enpresen Foroa eta, laster, Euskal Herriko beste administrazio batzuentzat zehaztea espero direnak.

Bai Euskarari Ziurtagiria eta ziurtagiridunek osatzen duten komunitatea da elkartearen ardatzetako bat. Komunitate hori sendotzeko lanean ere ari zarete. Zein ekimen dituzue abian?

Komunitateari begira, guretzat funtsezkoa da haien beharrak antzematzea eta horiei erantzun egokiak eskaintzea, arreta berezitua eskaintzea eta ziurtagiridunak prestigiatzea. Era berean, komunikazio eta sentsibilizazio kanpainak ari gara egiten. Berriki osatu dugu 'Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko hamaika arrazoi' kanpaina. Bertan, gure komunitateko 11 entitateetako kideek ziurtagiria lortzeko arrazoi bana eman digute bideoan. Aurrera begira ere kanpaina horrekin jarraitu nahi dugu eta arrazoi gehiago bilduko ditugu, beste entitate batzuk ere prest ditugu-eta parte hartzeko!

Horrez gain, Gasteizko kontsumo kanpaina ere abian dugu: Gasteizko Bai Euskarari entitateetan euskaraz kontsumitzen dutenen artean zozketa bat egingo dugu.

Bai Euskarari Komunitateari ikusgarritasuna ematea da elkartearen helburuetako bat eta, horri begira, euskara ikasten ari diren ikasleentzat kanpaina bat egingo dugu, euskaraz artatuko dituzten saltoki, taberna, enpresa eta abarrak identifikatzeko euskarri batzuk agitaratuz.

Ziurtagiriaren homologaziorako eta elkarlanerako bidean beste urrats bat eman berri du elkarreak ziurtagiria eskuratzeko irizpideak egokitzuz. Zein izan dira urrats horiek?

Ziurtagiria eskuratzeko irizpideak Erreferentziazko Marko Estandarrera (EME) hurbiltzeko eta egokitzeko lan egin dugu. Horrela bada, EMEn bi ardatzen arabera bilduko dira: "Zer-



bitzua euskaraz" eta "Lana euskaraz". Guretzat erabat koherentea da, horiek izan baitira ziurtagiriaren sorreratik kontuan izan ditugun mailak.

Azken urte hauetan Bikain eta Bai Euskarari Ziurtagiriaren elkarrekiko aitortza agerikoagoa izan bada ere, oraindik, eta hainbat hurbiltze-saio egin diren arren, ez gara iritsi bien arteko elkarlana zehaztu eta sistematizatzera, tamalez. Bi sistemen artean desberdintasunak egon badaude, batez ere jomuga duten enpresa izaerari, prozedurari, planifikazioari edo-eta segimenduari dagozkionak. Hala ere, gehiago dira elkartu beharko gintuzketen aldagaiak urruntzen gaituztenak baino.

Urrats nabarmen batzuk egin dira bi sistemen uztarketari eta elkarlanari bidea emateko. Eusko Jaurlaritzaren Euskara Eredu Sozioekonomikoan Sustatzeko Planean (EESSP), adibidez, aitortzen da Bai Euskarari Ziurtagi-

riaren bidez egindako ekarpena eta azpimarratzen da ziurtagiriaren eske- ma egokitu, indartu eta zabaltzearen beharra. Planaren aurtengo asmoen artean, gainera, ziurtagiriaren eskema egokitzea dago, zerbitzu eta lan hizkuntza euskara izan dadin sustatzeko.

Bai Euskarari Elkarreak, bere aldetik, egokitzapen metodologiko garrantzitsuak egin ditu. Aldaketa honi esker, Bai Euskarari Ziurtagiria berritzearekin batera, balioa erantsi nahi izan diogu, entitateetan eragiteko eta haiei laguntzeko baliagarria den tresna gisa. Bai Euskarari Ziurtagiria homologatzeak bidea zabalduko luke arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera erosoarekin lotzeko, eta Ziurtagiria duten entitateek dirulaguntza, hitzarmen eta kontratazio-deialdi publiko guztietan euskararen ziurtagiri bezala aurkezteko.

Orain, elkarrekin aritzeko erabakiak behar dira.

Ziurtagiri berriak

Irudi berriarekin batera, Bai Euskarari Ziurtagiriaren itxura ere aldatu da. Komunitateko entitateek laster jasoko duzue eranskailu berria, zuen saltoki, taberna edo enpresaren sarreran jarri ahal izateko. Bitartean, zuen gaineko euskarrietan berri edo webgunean txertatu nahi baduzue, Baieuskarari.eus-eko 'Saioa hasi' atalean sartuta, dagokizuen ziurtagiria deskargatzeko aukera izango duzue.



Zein da zuen arrazoa?

HAMAICA ARRAZOI DAUDE
BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA
LORTZEKO: MOTIBAZIOA,
LEHIAKORTASUNA,
BERRIKUNTZA, HURBILTASUNA,
ERREKONozIMENDUA...
BAINA GUK ESATEA BAINO,
NAHIAGO IZAN DUGU BAI
EUSKARARI KOMUNITATEKO
KIDEEK DITUZTEN ARRAZOIAK
ENTZUTEA. HORREGATIK,
AZKEN ASTEOTAN 11
ENTITATEREN ESKUTIK, BAI
EUSKARARI ZIURTAGIRIA
ESKURATZEKO HAMAICA
ARRAZOI ENTZUN DITUGU.

#11arrazoi kanpainaren lehen zatian komunitateko kide hauek hartu dute parte: Aner Garmendia (EGA Master), Maia Larronde de Ajuriaguerra (Euskal Hedabideak), Maite Agirresarobe (Artis Kreativa), Patxi Bergara (Enargia), Txuss Alfonso (ABB Niessen), Oihana Zamponi-Galé (Eusko Ikaskuntza), Marco Bianchi (Museo del Órgano), Aitzol Salaberria (Egur Berri), Leire Bilbao (Innobasque), Peio Beaucoueste (Kinesiterapeuta) eta Irefe Barrena (Ikaslan-Bizkaia).



Kode hau eskaneatuta ikus ditzakezue hamaika arrazoiak:



Parte hartu nahi duzue?

Kanpainak bigarren zatia izango du uda ondoren. Zuek ere Bai Euskarari Ziurtagiria lortzeko arrazoa emanez parte hartu nahi baduzue, idatziezaguzue info@baieuskari.eus helbidera.

lansarean



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

**EUSKARAZKO
LAN-ATARIA**
LAN BILA ZABILTZA?
LANA ESKAINTZEN DUZU?

lansarean.eus





Lankidetza hitzarmena berritu dugu Euskal Moneta Elkartearekin

Bai Euskarari eta Euskal Moneta elkarteek lankidetza-hitzarmena berritu dute eta bakoitzaren ekintzak indartzeko, sostengatzeko eta sustatzeko ahaleginak egingo dituzte. Elkar-te bateko edo besteko kide den egitura batek beste dinamikarekin bat egin nahi balu, prezio murritzua eskuratuko luke.



14 entitate berri Bai Euskarari komunitatean

2021 urtea hasi zenetik 14 entitatek eskuratu dute Bai Euskarari Ziurtagiria, enpresan euskara erabili eta sustatzeko helburuarekin. Arlo sozioekonomikoan euskararen erabilera areagotuz ari gara pausoz pauso. Zorionak denoi eta ongi etorri Bai Euskarari komunitatera!

- Ai Laket! (Araba)
- Argibide (Bizkaia)
- AZ Participación (Araba)
- Euskal Hedabideak (Nafarroa Behera)
- Hiru Larroxa Koop. Elkar-te Txikia (Gipuzkoa)
- Izarkom Koop. Elk (Gipuzkoa)
- Kepa Urrutia Kareaga (Bizkaia)
- Les Alizés Agentzia (Lapurdi)
- Moondura Kit Van Camper (Lapurdi)
- Oionenea elk. txikia (Araba)
- Pablo Orbea Arkitektura (Bizkaia)
- Sr. & Sra. (Gipuzkoa)
- TxukuntZen Antolatzaile Profesionala (Gipuzkoa)
- Urtxintxa (Gipuzkoa)



Ikusi ziurtagiridun guztien mapa:

Bai Euskarari Elkarteari lagundu, Enargian harpidetza eginda



Enargia eta Bai Euskarari Elkartearen arteko kideztasun eskerrak, Enargian harpidetza egiten duzuen bakoitzeko, Enargiak dohaintza bat egingen dio Bai Euskarari Elkarteari. Harpidetza egiterakoan **BaiEu21 kodea** erabili beharko duzue, Enargiak jakin dezan Bai Euskarari Komunitatetik izena eman duzuela.



Gasteizen euskaraz kontsumitzeak saria dakar!

Gasteizko merkataritza eta ostalaritzan euskara erabiltzea sustatzeko kanpaina jarri du martxan Bai Euskarari Elkar-teak; uztailaren 15era bitartean Bai Euskarari ziurtagiria duten Gasteizko dendetan euskaraz kontsumitzen duten bezeroek zozketa batean parte hartu ahal izango dute. Anima zaitzete!





ZOKETA Ekainaren 1etik uztailaren 15era

Gasteizen euskaraz kontsumitzeak saria dakar!

SARIAK

1. **100 €-KO** BONO BAT.
2. **50 €-KO** BI BONO.
3. **HIRU HARPIDETZA ALEA** ALDIZKARIAN.
4. **LAU BAZKARI/AFARI** BI LAGUNTZAT.



LAN ETA BIZI EUSKARAZ



Laguntzailea

Ziurtagiritik hasi eta
Bai Euskarari Elkartearen beste
proiektu guztietan parte hartzen
dugun guztiok osatzen dugu
Bai Euskarari komunitatea, arlo
sozioekonomikoaren espazioak
euskaraz betetzeko eragiten ari
garenon sarea.

Jarrai dezagun #Sarealndartzen



LAN ETA BIZI
EUSKARAZ

baieuskarari.eus

f t @ in v